

JOSE LUIS ALVAREZ EMPARANTZA «Txillardegi».—*Leturia*.
Translated by Maddi Alvarez Forcada. A Publication
of the Basque American Foundation. 1986.

Izenburu jatorrez *Leturiaren egunkari izkutua* deritzan eleberri hau duela hamazortzi urte, euskarazkoa argitaratze-tik laster, behar zuen erdarazko itzulpenez plazaratzea. Bai-na hori ez zen lortu bere garaian eta gure literaturagintzan maiz gertatu zaigunari jarraiki esan dezagun, gure gogoaren engainagarri bederen, inoiz ez dela berandu.

Mende honetan hizlauru gurean sortu eta besteetara eskaini ditzakegunetan lehen mailakoa dugu Txillardegiren eleberri hau. Esistentzialismoa Europan indarrean zegoen garaikoa izatez, etxe eta kanpo itzala, ospea eta errespetua irabazte-koa bai zen.

Garai haretan euskaldungoan genbiltzanok guti ginen bai-na garai bereko orduan arituz, denbora haretako mugimendu orokorretik hurbil. Zuzenean edo zeharka, *Combat* eta aldiz-kari honen inguruko lanak ezagunak genituen eta horren kutsua nabari zen. Bestalde, filosofia kontzeptuak, K. Mi-txelenak eleberri honi egin zion hitzaurreak erakusten digu-nez, ingleseko argitalpen honi ere ez zitzaion gaizki eto-rriko.

Leturia's secret diary hau Spainian bertan Ediciones Be-ramar, S. A.-k argitaratu du eta Ameriketara edo ingeles min-tzairadun herrialdeetan izan dezaken zabalkundea zalantzan jartzen dut, zeren Basque American Foundation delakoaren zuzendariak han zerbait badela oihu eginaz hemen eskarie-tarako hotsa lortu nahi luke, eta ohi duen taktikaz beste *show* bat baizik ez dirudi. Hala bada ere, gure literaturaren hedakundez beste urrats bat da eta ongi etor bedi.

J. S. M.